

2014KO MAIATZAREN 29AN EGINDAKO OHIKO UDAL BILKURA

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2014ko maiatzaren 29an, arratsaldeko 7:00etan

BATZARKIDEAK:

Lehendakaria: AITOR APRAIZ IMATZ

Zinegotziak:

- PALOMA DE EPALZA GARCES DE LOS FAYOS
- ELSA MARÍA IMATZ BASARRATE
- LUIS FLORENCIO ZABALA SANTA ANA
- FELICIANO JAUREGUIZAR ORAINDI
- IKER MURUAGA GOIKOETXEA
- JON PELI HORMAECHE ASOLO
- ALBERTO BILBAO BELTRÁN DE GUEVARA
- GORKA RENTERIA GARAI
- MIREN LUKE VERDES CEARRA
- AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA

Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren ohiko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deustela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikera emoteko legezko “quorum”a dagoala egiaztatu orduko, alkate jaunaren lehendakaritzapean ondorengo gai honeek eztabaidatu eta erabagi dira:

1.- 2014KO APIRILAREN 24AN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA IRAKURRI ETA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2014ko apirilaren 24ko ohiko udalbatzaren akta, eta alkateak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotzietz akta hori aho batez onartu dabe.

2.- 2014KO APIRILAREN 28AN EGINDAKO APARTEKO UDALBATZAREN AKTA IRAKURRI ETA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2014ko apirilaren 28ko ezohiko udalbatzaren akta, eta alkateak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotziek akta hori aho batez onartu dabe.

3.- ALKATETZAREN DEKRETUEN BARRI EMON

Gai honeri hasikera emoteko, idazkari jaunak ondorengo dekretuen barri emon dau; halanda be, zinegotziak dekretuen kopien jaube dira.

146/2014.- Udalbatzari martiaren 20ko 169/2014 epaiaren barri emotea (Imanol Garai).

147/2014.- Agurtzane Imatz andreari obra lizentzia emotea estalpe arin baten zenbait elementu konpontzeko.

148/2014.- Ainhoa Uriarte Lemona andreari lizentzia emotea kortako erreteila aldatzeko.

149/2014.- JESUS MUNGIA PUENTE jaunari leihoak aldatzeko lizentzia emotea.

150/2014.- EGOITZ ABIO JAUNARI, ALAITASUNA PELOTA TALDEAREN IZENEAN, kiroldegiko frontoia erabilteko baimena emotea.

151/2014.- EGOITZ ABIO JAUNARI, ALAITASUNA PELOTA TALDEAREN IZENEAN, probalekua erabilteko baimena emotea.

152/2014.- Kautelazko neurri modura apirilaren 2ko 120/2014 dekretua bertan behera ixtea, Imanol Garaik bizi dauen egoerea birbideratu arte.

153/2014.- María Benigna Erausquin Mardaraz andreari nitxo baten kontsezinoa emotea.

154/2014.- BEGOÑA AGUAYO IBAÑEZ andreari, BAKIO HEDATZEN ALKARTEAREN izenean, itsas ibiltokiaren erdigunean umeentzako tailerrak egiteko eta kometen erakustaldia bat egiteko baimena emotea.

155/2014.- Gilda María Rosa de Escobar andreari Bakioko biztanleen udal erroldaren inskripzioan baja emotea.

156/2014.- Bilboko Administrazioagazko Auzien 3 zk.ko Epaitegiak trafikoko isun baten inguruan emondako 72/2014 epaia betez, KOROTT S.L. enpresari 62.04 euroko kopurua itzultzea.

157/2014.- ELISA GONZALEZ andreari lizentzia emotea barruko erreforma bat egiteko.

158/2014.- AGURTZANE IMATZ andreari lizentzia emotea fatxada margotzeko.

159/2014.- Udalerriko urigintza plangintza orokorra berrikusteko dokumentu bat egiteko lanei jagokenez emandako 136.000 euroko diru-laguntza osotik 20.174,29 euro itzultzea Bizkaiko Foru Aldundiari.

160/2014.- LUIS CASTILLO MARTINEZ jaunari lizentzia emotea bainugela bi barriztatzeko eta leiho bat aldatzeko.

161/2014.- Agurtzane Ormatza Imatz andreari Kultur Etxeko gela bat erabilteko baimena emotea.

162/2014.- ANTONIO PIQUERES URBAN jaunari Biztanleen Udal Erroldan baja emotea.

163/2014.- IÑAKI ARROYO LLANOS jaunari zorua isolatzeko uda lizentzia emotea.

164/2014.- NAHIKARI BELTZA andreari, BEAKING MOLDS enpresaren izenean, Eroskiko udako spota egiteko udal baimena emotea.

165/2014.- Jose Antonio Luzarraga jaunari izapidetutako premiamenduzko prozedura dala eta, egindako egiaztagiria onartu, beti be SUR2.Bakea eremuko urbanizazinoko obren gastuei jagokenez.

166/2014.- MIREN GOIZALDE LEJARZA INTXAURBE andreari bainugelea barrizteko udal lizentzia emotea.

167/2014.- LUIS ABANDO URIZAR jaunari udal baimena emotea Mundakako Kayak Surf Txapelketa egiteko, Mundakan olaturik ez badago.

168/2014.- LUIS ABANDO URIZAR jaunari udal baimena emotea Bakioko Kayak Surf Txapelketa egiteko.

169/2014.- Bakioko udalerriko sastarrak batu eta garraiatzeko zerbitzua emoteagaitiko abala itzultzea.

170/2014.- SAIOA APRAIZ andreari, DIMAS ELGEZABAL jaunaren izenean, suetea eta bainugela barriztatzeko udal lizentzia emotea.

171/2014.- MARIA JESUS ETXEBARRIA ATXA andreari kolunbarioa esleitzea berrogeita hamar urteko epean.

172/2014.- Film bat grabatzeko baimena emotea Karambola Producciones enpresari.

173/2014.- BILDU-BAKIO udal taldeak aurkeztutako idatzian aurkeztutako alegazioak ez onartzea.

174/2014.- Case 80 CV, Bi-13004-VE izendapena daukan traktorea eta KA 1200 sasiak garbitzeko makina erostea kontratu txikiaren prozeduraren bitartez.

175/2014.- Ekitaldi arrunteko zenbait ordainketa kreditu askatzea eta horiei baja ematea eta, horretarako, kreditu erabilgarrien ezeztapen partziala egitea kredituen aldarazpen baten bitartez.

176/2014.- Bilduko Udal Taldeari maiatzaren 22an (eguna) Kultur Etxeko batzar gela handi bat erabilteko baimena emotea 19:00etatik 20:30era bitartean.

177/2014.- Axik eskatutako ekitaldia baimentzea eta eskatutako laguntza emotea .

178/2014.- Bakio Kirol Taldearen 25. urteurrena dala eta, bolanderak emoteko eta jaurtitzeko baimena emotea.

A) Felix Jauregizar zinegotziak 146/2014 dekretuari buruz adierazo dau bertan martiaren 20ko 169/2014 epaiaren barri udalbatzari emotea erabagitzen dan arren, epaiaren barri emotea ez dala ipini udalbatzaren aztergaien barruan orain arte modura, eta horren zergaitia zein da galdetu dau.

Idazkariak, laburbilduz, ondoko hau adierazo dau:

1.- Udalbatzen gai zerrendetan epaien barri emotea puntu modura sartzearen bidez kotasunari buruz, esan behar da udalbatzaren erabagia dala-eta auzibidea izapidetu ezkerro, bidezkoa dala epaiaren gaia udalbatzaren aztergaiaren barruan sartzea, baina, osterantzean, ez, hau da, auzibidearen oinarria alkatearen erabagia izan bada.

2.- Espedienteari jagokonez hauxe:

Imanol Garaik bere lursaila dagoan lurrezko horma bat garbitzeko lizentzia eskatu eban, obrea baimena jaso aurretik hasi zan egiten, baina horma horrek Patxi Gutierrezen etxaldeagaz mugatzen eban ezkerro, azken honek udalari eskatu eutsan Imanoleri obrak gelditzea agintzeko, horma horrek bere etxaldearen itxidurari eragin ahal eutsalako, kalteak sortuz, eta, bide batez, eskatu eutsan be hornea behar dan modura finkatzeko asmoz, Imanoleri obrak egitearazteko.

Alkatetzaren erabagiaren bidez, udalak Imanoleri eustorma egiteko proiektua aurkezteko agindu eutsan, horretarako epea emonaz. Epea igaro arren, ez eban proiekturik aurkeztu eta, denbora luzea pasatu ostean, udaleko arkitektoak eta aparejadoreak txostena eben adierazoteko eustorma ez zala beharrezkoa hornea, denboraren poderioz, finkatuta egoalako.

Txosten hori dala eta, Alkatetzaren 186/2011ko dekretuaren bidez, obrak legalizatzea erabagi zan.

Patxi Gutierrezek Alkatetzaren 186/2011ko dekretuaren aurka auzi-helegitea ipini eban, baina Bilboko 5. Administrazioagazko Epategiak, 234/2012. epaiaren bidez, helegite hori atzera bota eban, gaia partikularren arteko ika-mika zala-eta horren urtenbidea jurisdikzio zibilari jagokola argudiatuz, beste aldetik, urigintzagaz zerikusia eukan atala intzidentala izanik, ez zala erabakigarria adierazo eban.

Patxi Gutierrezek epai horren aurka 2012/848 apelazino helegitea aurkeztu eban, eta, horren ondorioz, martiaren 26ko 169/2014 epaia kaleratu da. Izan be, epai horretan ez

dira onartzen aurreko epaiaren argudioak, eta gaiari oratuz Alkatetzaren garagarriaren 30eko 147/2010 dekretua bertan behera ixtea erabagitzen da. Izan be, adierazoten da Imanolek beharrak lizentzia barik egin ebazala eta, beraz, ezin zirala legalizatu, eta, beraz, epaian lursaila lehengoraztea agintzen da obrak egin aurretik egoan modura itxiz.

Azkenik, epaiok, ez bata ez besteak, ez dabe aintzat hartu errekurtsogilearen beste eskabide hau: Garay eta Nebredaren desobedientzia eta udaleko teknikarien eta arduradunen jarduna dala eta, fiskaltzari horren barri emotea

B) Felix Jauregizar zinegotziak 173/2014 dekretuari buruz hauxe adierazo dau:

a) 2013ko udal aurrekontuaren luzapena 2014ko urterako onesten eban martxoaren 5eko 100/2014ko dekretuaren aurka BILDU-BAKIO taldeak alegazioak aurkeztu ebazan, adierazoten gendualako dekretuan aitatzen zan araua Estadukoa zala, aplikagarria bertoko arautegia danean (Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Araua).

Idazkari-kontuhartzaileak alegazioen ganean egindako 2014-04-23ko txostenean azaltzen da, besteak beste, 100/2014 dekretuan Estatuko araudia aitatu arren, udal aurrekontuaren luzapena abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren arabera egin dala, hau da, luzatutako kredituen zenbatekoak amaitutako azken ekitaldi ekonomikoko azken egunean onetsitakoak hartuz; eta esaten da arauzko aipamen baten faltak ez dauala inola ere eragiten erabagia deuseza izatea.

Guk ez dinogu hori, dinoguna da dekretuan aplikagarria ez dan arautegia ipintek erabagia indargabetu egiten dauala.

Idazkariak dino: Estaduko arautegiaren arabera, luzatutako kredituen zenbatekoak ekitaldi ekonomikoari jagokozan hasieran onetsitakoak hartu behar dira, gure kasuan, barriz, 10/2003 Foru Araua aplikatu dala. Ganera, 100/2014 dekretu horrerri buruzko txostenean be aitatzen Foru Arau hori dala aplikagarria.

Felixek dino dekretua txarto eginda badago, bertan behera itxi eta horren orde best bat egitea ez dala ezer kostatzen.

Horrerri buruzko eztabaida amaitu eta berehala, Felixek dino: udal idazkariaren bigarren puntuan hauxe adierazoten da:

2012ko diruzaintzako gerakin negatiboa 1.411.663,23 eurokoa izan zan ezker, hori dala eta, Udalbatzak 2013ko maiatzaren 28an hurrengo udal aurrekontua zenbateko horrenbesteko superabitagaz onartzea erabagi ebala.

2013ko diruzaintzako gerakin negatiboa 1.276.159,05 eurokoa izan dala. Eta diruzaintzako gerakina kontzeptu metagarria dan ezker, zuzendu beharreko gerakina

2013koa dala. Hortaz, udalbatzak 2014ko martiaren 27an hurrengo udal aurrekontua 1.276.159,05 superabitagaz onartzea erabagi ebala.

Baina, Bildu-Bakio taldeak ez dau alegazinoetan aitatu 2014ko diruzaintzako gerakinari buruz ezer, dinoena da 2012ko diruzaintzako gerakin negatiboari (1.411.663,23 euro) 2013ko urtea amaitu baino lehen urtenbidea emotea erabagi zala, eta ez jakon emon ezkerero, urtenbidea bilatu behar dala, gastuen kredituak murriztuz.

Alberto Bilbao zinegotziak dino: esaten gagozana da 2012ko diruzaintzako gerakin negatiboari (1.411.663,23 euro) 2013ko abenduaren 31rako urtenbidea emon behar izan jakola, eta ez zala egin, eta 2013ko diruzaintzako gerakin negatiboari (1.276.159,05 euro) urtenbidea 2014ko abenduaren 31 baino lehen emon behar jakola, besterik ez.

Idazkariak dino ezin izan dala 2012ko diruzaintzako gerakin negatiboari urtenbidea beren-beregi emon, 2013ko udal aurrekontua ez zalako onartu.

Amets Jauregizar zinegotziak berronetsi egin dau Felix eta Albertok esandakoa.

b) Felix Jauregizar zinegotziak dino: *139.000 euro betearazo barik dagoz, eta idazkariaren txostenean horrezaz hiru araudi aitutzen dira. Baina, Bilduk eskatu dauana da diru kopuru horren zehaztasuna, eta ez da emon.*

c) Felix Jauregizar zinegotziak dino:

Idazkariaren txostenean azaltzen da ordainduta baina aplikatu faltan 492.635,78 euro 400.01 kontuan erregistratuta dagozala, eta 2012ko ekitaldiko aurrekoak diran ezkerero, eta, beraz, 2013ko ekitaldian sortu bakoak, bai eta udal aurrekontuaren luzapenean horrerri buruzko jurisdikzinoz kanpoko onespelik aurreikusi ez dan ezkerero be, ez dagoala doikuntzarik egin beharrik.

Bilduk galdetzen dauana da ia zergaitik dagoan kopuru hori horrelako egoeran eta ia ziurtzat emon daiteken, horretatik aparte, egoera berdinean ez dagoala zenbateko gehiagorik. Eta hori idazkariak ziurtatu beharko leuke.

4.- 2014KO URTARRILAREN 1ETIK MARTIAREN 31RA ARTEKO EPEARI JAGOKON UDAL AURREKONTUAREN BETEARAZPEN EGOEREAREN BARRI EMON.

2014ko urtarrilaren 1etik martiaren 31ra arteko epeari jagokon udal aurrekontuaren betearazpenari buruzko agiriak zinegotziek daukien ezkerero, alkateak bertan dakarrenaren ganeko azalpen laburra emon dau, ondorengo esanez: udal aurrekontuari jagokonez, martiaren 31n aurrekontu iraunkortasunaren eta gastu arauaren helburuak beteten dira, finantzazino gaitasuna 383.784,82 eurokoa da (doikuntza planean finantzazino gaitasuna 302.713,47 eurokoa da).

5.- 2013KO KONTU OROKORRARI BURUZKO ERABAGI HARTU, BETI BE AURKEZTUTAKO ALEGAZINO IDAZKIAK EBATZI OSTEAN.

Atoan, Aitor Apraiz alkateak, EAJ/PNV udal taldeareni zenean, ondorengo adierazo dau:

“2013. kontabilidade-ekitaldiko Kontu Orokorra (atal honeek osotuz: egoerearen balantzea, galera eta irabazien kontua, memoria, aurrekontuaren likidazioa eta urteko egoerari buruzko eranskinak), kontuen udal batzorde bereziaren txostena jaso ostean, jendaurrean ipini zan 15 egunean –horretarako herriko taulan eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarkiak argitaratuz–, interesatuek erreklamazioak edo oharrak aurkeztu ahal izateko. Informazio publikoko epealdia igaro baino lehen jaso dan alegazino-idazki bakarra BILDU-BAKIO udal taldeak aurkeztutakoa izan da. Ondorioz, Idazkari-kontuhartzaileak txostena idatzi dauala-eta Kontu Orokorra udalbatzarrari aurkezten jako onarpena emon deion, hala behar balitz”.

Idazkariaren txostenaren kopia zinegotzi guztiek daukien ezkerro, Alkateak idazkariaren txosten horren azalpen laburtua emon ostean, adierazo dau bere taldearen proposamena dala BILDU-BAKIOren alegazinoak atzera bota eta 2013ko kontu orokorra onartzea.

Felix Jauregizar zinegotziak, BILDU-BAKIO taldearen izenean, adierazo dau talde horren alegazinoen defentsan haxe adierazo beharra daukala:

a) Bilduren alegazinoen lehenengo atalaren ganean — egin ez diran kredituen habilitazioak titulupean A,B,C eta D azpiatalak — udal idazkariaren txostenean esaldi hau ageri da : *egia da zuen alegazinoan honakoa aipatzen dela “guk uste dugu garrantzitsua dela...”; horregaitik, agiri honen sinatzailearen iritziz, lehendabiziko puntu hori ez litzateke alegazino bat*

Horrezaz esan behar da “guk uste dugu garrantzitsua dela...” esaldia D azpiatalari jagokola eta ez gainontzekoei. Izan be, A,B, eta C azpiataletan kredituen gaikuntzak egitea derrigorrezkoa dala uste dogu.

b) Arau Subsidiarioak berrikusteko, udal aurrekontuko gastuen egoeraren ataleko ordainketa kredituen barruan zainpetuta 194.000 euro ageri dira, 2013, 2014 eta 2015 urteetan bananduta, eta beharren lizitazio aurrekontua 145.000 eurokoa izan zan ezkerro, eta, ganera, ostean egindako esleipenaren aurrekontua, zenbateko txikiagokoa, ez da legezkoa alkatearen erabagiz erabiliko ez diran zenbatekoei baja emotea, erabagia hartzea udalbatzaren eskumena dalako; izan be, lehen be 194.000 euro zainpetzea udalbatzak erabagi eban-eta.

c) Urteko desbideraketa negatiboa dala eta, egia da euron zenbatekoa guztira ez dala 20.376,69 eurokoa, baina ezta kontu orokorrean agertzen dan kopurukoa be

(560.964,21€). Bilduk kalkuluak egin dauz (kalkulu-orria emon deutso idazkariari) eta hauxe esan beharra dago: kontu orokorrean desbideraketa negatiboen kalkulua %93 portzentaia hartuta egin da, baina ez da kontuan hartu txakolinguneko dirulaguntzaren zati bat Madrilera itzuli zala, eta, beraz, desbideraketaren kalkulua egiteko %87ko portzentaia hartu behar zala. Hortaz, Bilduren kalkulu-orrian ageri da desbideraketa negatiboen zenbatekoaren kopurua (558.164,22€) %87ko portzentajearen arabera kalkulata. Beraz, zuzendu eta hurrengo plenoan aurkeztu beharko da.

d) Itxitako ekitaldietan kobratzeko dagozeneri jagokenez, udal txostenean, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 10/2003 Foru Arauaren 48.6 artikuluari oratuz, ageri da 24 hilabete gorako antzinatasuna daben eskubide guztiak kobrantzazkotzat edo kobragaitzat hartu dirala; baina gure ustez hor dagoz urigintzako hitzarmenetik eratorritako 2.000.000 euro inguru, eta eurok kobraezintzat hartu eta baja emon beharko litzatekez. Izan be, kobrantzazkotzat momentukoak hartu beharko litzatekez, ze besteen betearazpena baldintza zehatz batzuren menpe dago, eta ez dakigu baldintza horreek noiz beteko diran, ezta beteko diranik be.

e) Fakturen 492.635,78 euroko zenbateko baten existentziaren ganean, udal aurrekontukoa ez dan 40.001 kontuan dagozanak, hauxe: *horreei buruz, udal txostenean besteak beste, ageri da igazko diruzaintzako gerakin negatiboa gehi zenbateko hori hurrengo udal aurrekontuan zuzenduko dirala*. Esan behar dogu 2012ko diruzaintzako gerakin negatiboa kentzeko ez bagara gauzan izan, 2013koa gehi aurrekontu kanpoko 492.635,78 euro horreek kentzea ez dala inondik inora be sinesgarria.

Amets Jauregizar zinegotziak galdetu dau fakturen berankortasunari buruzko txostenaren barri udalbatzari hiru hilebetero emon behar jakon ezkerro, ia horregaz batera udal aurrekontuko kanpoko fakturen barri be emon behar jakon.

Idazkariak dino baietz; izan be, udalbatzari ordaindu barik dagozan fakturen barri emon behar jako, ordaintzeko epemuga igarota zeintzuk daukien edo ez zehaztuz.

Ametsek adierazo dau horrek argi erakusten dauala gardentasun falta, ze hainbat berankortasunari buruzko txostenaren barri emon diran arren, ez dira udal aurrekontuko kanpoko fakturak behin be azaldu.

Aitor alkateak dino udal aurrekontuko kanpoko fakturak dagozanaren barri zinegotziei beste inoiz be emon jakela.

Felixek galdetu deutso idazkari-kontuhartzaileari ia egiaztatuko leuken zehatz, aitaturako 492.635,78 euroko fakturez gain, udal aurrekontuan zainpetu bako fakturarik dagoan.

Idazkari-kontuhartzaileak baietz erantzun deutso, egiaztatu leikela ez daukala zainpetu bako fakturen barri.

Alkateak bozkatzeko agindua emon dau, eta horrerri ekinik, Aitor Apraiz, Floren Zabala, Gorka Renteria, Paloma Epalza, Iker Muruaga eta Elsa Imatz EAJ/PNVko

zinegotzien aldeko botoagaz, eta, beraz, bertaratutako zinegotzi gehienak izanik, Bakioko Udalbatzak, erabagi hau hartu dau:

LEHENIK: BILDU-BAKIO udal taldeak aurkeztutako alegazinoak ez onartzea, udal idazkari-kontuhartzailearen txostenean azaltzen danaren arabera.

BIGARRENIK: Bakioko Udaleko 2013ko ekitaldiko Kontu Orokorra onartzea.

Feliciano Jaureguizar, Alberto Bilbao, Amets Jaureguizar, Miren Luke Verdes eta Jon Peli Hormaeche BILDU/BAKIO udal taldeko zinegotziek, azken honek aurkeztutako alegazinoen aldeko botoa emon dabe.

6.- UDAL HONEN ADMINISTRAZINO-PROZEDUREN GIDALIBURUA PRESTATZEKO PROZESUARI EKITEKO ERABAGIA HARTU.

Aitor Apraiz alkateak, EAJ/PNV taldearen, izenean hauxe adierazo dau: *administrazioaren prozedurak sinplifikatu eta arrazionalizatzeko, era horretara administrazio elektronikora egokitzea ahalbidetuz, baliagarria da administrazioaren prozeduren gidaliburuak esku artean izatea. Beraz, gidaliburuok prestatzeari ekin gura deusagu administrazino prozedura guztiak aztertuz, eta prestatze horren prozesuan udal beharginek hartuko dabe parte, eta horretarako EUDELen laguntza izango dogu; izan be, dagoeneko erakunde horregaz hartu-emonetan gabiltza. Izan be, prozeduren gidaliburuak eukiteak abantaila handiak izateaz gain, eurok prestatzeko prozesuan parte hartzeak be onura aberasgarriak ekarriko dauz, esaterako, gidaliburuak daukiezan beste udal batzuetako esperientzia jakiteko aukerea izango dogu. Horrenbestez, hemen proposatzen dana honakoa da: udal honen administrazino prozeduren gidaliburua prestatzeko prozesuari ekiteko erabagia hartzea.*

Felix Jauregizar zinegotziak, BILDU-BAKIO taldearen izenean, dino: *gure taldeak orain hiru astera arte ez dau horren barririk izan, udal gobernua gaia aritzen hasi zana hile batzuk badiran arren, alkateak esan ebanez. Gaia ez da eztabaidatu eta inork be ez deusku emon argibide zehatzik; horrenbestez, prozesuan hasikeratik jarduteko ez dogu aukerarik izan. Hortaz, administrazinoen prozeduren gidaliburuak prestatzearen alde gagozan arren — administrazinoak bere eraginkortasuna bermatzeko martxan ipinten dauzan neurriak normaltzat hartu beharrekoak dira, eta, beraz, ez dagoz udalbatzara ekarri beharrik, administrazinoaren ohiko funtzionamenduari jagoko-eta —, uste dogu astia egon dala gaia informazino batzordeetan eztabaidatzeko, eta, ezin dana da danon artean aurretiz eztabaidatu barik gaiari baiezko botoa emon, beste barik; horrela bada, Bildu-Bakio taldea abstenidu egingo da.*

Alkateak dino prozesu horren ganean nahiko argibide emon dala informazino batzordean eta administrazinoaren prozeduren gidaliburuak prestatzeko prozesua martxan ipinteko udalaren baimena izatea EUDELe garrantzitsua ikusten dauala, batez be prozesu hori indartzeko, eta, ganera, ekinbide horretan sartuta dagozan udaletan ez dauala alderdi politiko berak agintzen.

Amets Jauregizar zinegotziak alkateari zuzenduz dino: *prozesua hasita dago jadanik, hamar herrik hartzen dabe parte, lau pertsona hasi zarie batzarretara joaten, definituta dago koordinazino taldea, organigrama guztia zehaztuta dago aurretik egindako lanagaitik eta BILDU-BAKIOk ez dau lan horretan parte hartzeko aukerarik izan, orduan ez dogu ulertzen gaia zer dala-eta aurkezten dan plenoan, prozesua martxan eta, beraz, erabagia hartuta dagoenean.*

Eztabaida izan da Aitorren eta Amets eta Felixen artean, ezelango adostasun barik.

Segiduan zinegotziek botoa emoten dabe. Hori dala eta EAJ/PNV udal taldeko Aitor Apraiz, Floren Zabala, Gorka Renteria, Paloma Epalza, Iker Muruaga eta Elsa Imatz zinegotzien aldeko botoagaz, korporazinoa legez osotzen daben gehiengo osoa izanik, eta EUDELen programeagaz bat etorritz, Udalaren Osoko Bilkurak, erabagi hau hartu da:

Bakioko administrazino-prozeduren gidaliburua prestatzeko prozesuari ekitea onartzea.

BILDU/BAKIO taldeko Felix Jauregizar, Amets Jauregizar, Alberto Bilbao, Miren Luke Verdes eta Jon Peli Hormaetxe zinegotziek, barriz, abstenidu egin dira.

7.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Felix Jauregizar zinegotziak galdetu dau ia egia dan hondartzara harea ekarriko dan eta horrerri buruzko informazinoa ia daukagun.

Aitor Apraiz alkateak dinotso Itsasertzeko Saitetik hori baieztatzen dauan informazinoa, telefonoz jaso dabela eta, hortaz, adierazo deuskula astegoi honetan Jaizkibetik 50.000 m3. kopuru hare ekarriko dabela, gitxi gorabehera, beti be aurretiaz harearen kalidadea ikertu ostein.

Eguneko aztergaien zerrenda barruan, ezta zerrendatik kanpo be, gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagiteko ez dagoanez, alkate jaunak batzar hau 19:00ean emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkatea

Idazkaria